



NAFARROAKO FORU AUTONOMIA : **BEREZITASUNAK, GABEZIAK ETA ERRONKAK**

1.- AUTONOMIA XXI MENDEKO EUSKAL HERRIAN.

Ekarpen edo txosten labur honetan xedeak anitzak dira. Alde batetik autonomiari berari buruzko azterketa xuma bat egin nahi nuke; bigarrenik, Nafarroa Garaian edo zehazki esanda Nafarroako Foru Erkidegoan ibilitako eta ibiltzen ari garen bideari buruzko lekukotasuna azaldu eta azkenik eta batez ere, etorkizunean, hau da XXI mendean Europar Batasuneko bide gurutze zaharra den euskal Herrian autonomiatik etor lekigukeenaren gainbegirada bat eman, bai Europako beste herriekiko harremanetarako nola gure arteko arazoak konpontzeko.

Autonomiaren izaeraz, mugetaz, beste eredu politikoekin dituen harremanetaz eta batez ere, etorkizunean izan duen garrantziaz edo paperaz erantzun behar dugu. Azterketa ideológico honetan jakina, autonomiari buruz egin izan diren eta egiten diren balorapen ideologikoetaz gainberada bat egin behar da nahi eta ez.

Beste alde batetik berriz, Hego Euskal Herrian, eta bereziki Nafarroa Garaian autonomiak dituen aurrekariak, egiturak, gabeziak eta ahalbideak aztertu behar dira. Azterketa hau berez politikoa da eta bertan, eragina duten indar eta eragileak kontuan hartu dira eta beren arteko indar harremana edo koerlazioa aztertau behar da, alegia.

Eta hirugarrenik, autonomiak etorkizunean izan lezakeen baliagarritasunaz ari beharko dugu. Autonomia badu, izan ere, gaur egungo gizartearen ezaugarri nagusia den batekin kidetasun berezia. Aniztasun sozialaz ari naiz. Gaur egungo eta batez ere gizartearen ezaugarri nabariena aniztasuna da; mota guztietako aniztasuna, egungo gizartearen berezkoa zaiona eta aniztasuna soziala kudeatu ahal izateko eredurik egokienetako bat

hain zuzen ere, autoomiarena da. Autonomia den foro edo enparantza horretan elkarr gintezkeenok, bide luzea egin baigenezake elkarrekin.

Autonomia eta autodeterminazioa ez dira elkarren etsaiak eta kontrakotasun horren iritzi okerra gairiditurik, abertzaleok jokatu behar dugun papera da alde batetik jakitarena abertzale ez diren beste batzuekin batera bultzatu behar dugula autonomia edo ez gaitezkeela bakarrak izan autoomiaren defentsan eta beste alde batetik, saiatu beharra daukagula autnomiaren bultzapenean eta defentsan inoren atzetik ez egoten.

Garai batzuetako heldutasun gabearen ondorioko okerra izan da autonomia indepentziaren arerio edo oztopo bezala ikustea. Aniztasunaren eta demokraziaren onarpenetik abiatuz gero, oker hori gairiditu eta onartu beharra dago autnomia eta independentzia gauza bera izan gabe, berdina izan gabe ere, ez direla elkarren aurkakoak. Abertzale eta ez abertzale garenok, independentistak eta ez independentistak eta beste edonolako hainbeste eta hainbestek herri honetan elkarrekin bizi gara, elkarrekin bizi nahi dugu eta lkarrekin .

Gainera, Euskal Herriari dagokionez aniztasun ideologiko eta politikoei aitortu eta erantsi egin behar zaie ezberdintasun horien aintzinasuna, aspaldikotasuna. Euskal Herri barneko aeberdintasun soziala, politikoa, hizkuntza eta kulturakoa edo soziala ez da atzo goizekoa, ez da XIX edo XX azken mendeetako gatasketatik sortua, behintzat hein handi batean. Ezberdinak ditugu egoera politikoa, ezberdinak ditugu indar politikoen koerlazioak. Ezberdintasun sakonak ditugu gizartean. Horregatik ezberdinak izanen dira batzuen eta besteen bilakaerak eta garapenak. Bide, abiadura eta eredu ezberdin horietan elkarri bizkar eman beharrean orain arte bezala, elkarri eskua ematen saiatu behar dugu, amankomunean ditugun helburu eta premiak asetzen. Horretarako balio lezake autoomiak.

Gaurko eta hemengo gizartea da, aldiari aldiko gizartea den bezala, erabaki esparru bakoitzean talde erabakien jabea, herri erabakien sujetua. Autoomiaren baliogarrtasun erantsia baita erabaki politikoen esparruak eraikitzeke duen gaitasuna.

Europar, azken berrogeitamar urteetan izan diren bilakera politikorik gehienak, bai independentziarunt batzuetan edo/eta baita beste zentzuren batean beste inoiz ere, autoomiaren bidetik gauzatu izan dira. Bavierako autoomiak Alemaniaren zati izatea erabaki zuen eta lander alemana da. Esloveniak berriz, bere autoomiatik abiatuta independentzia aukeratu zuen. Adibideak anitzak dira, baina maizenik edo gehienetan gertatu ohi dena da autoomiek beren egituretan iraun dutela.

Euskal Herriaren kasuan hiru balizko esparru autoomiko izateak, edo bestela esateke esparru autoomikoa ez etortzea bat herri esparruarekin, berezitasun gehitu bat da.

Baina esparru ezberdin horiek erro zaharrak dituzte, historiaren eta hainbeste eta hainbeste istiluren ondorio diren erroak. Ez dira inolaz ere frankismoaren ondoreko erreformare ondorioa. Ez dira, ez izateagatik, ezta Fraitziaren edo Espaiñiaren

zentralismoaren ondorio ere, lehenagotik datorren zatiketak edo esparru bereizketak baizik.

Euskal Herria den bezalako da. Mende eta mendeetako historiak ezarritako egitura du eta egitura horretan bilakera demokratikorik izatekotan, berezkoa edo erroetan ezarria duen egitura horren bilakaeraz egin behar da. Horregatik Euskal Herriko lurraldetasunari DIAKRONIKOA deitu diogu. Estructuralismoak erabilitako hitz eta izen horren bitartez adierazi nahi dena da lurralde edo erabaki esparru bakoitzak bere bilakaere, bere abiadura edo ziztua eta bere abiapuntua dituela. Izan ere, erabaki esparru horiek, lurralde horiek dira Euskal Herriko autonomia esparruak.

Lurraldetasuna deitutako aldarrikapenaren gakoa Nafarroa da. Eta zerbait argi gelditu bada azken gatazka politikoetan da Nafarroaren etorkizuna soilik politikoa dela, soilik politikoki gaintitu daitekeela eta Nafarroa Garaia bera erabaki esparrutzat aitortuta eta aitortzen dugun heinean dugula egoera aldatzeko aukerarik demokratok. Beste nolabait esanda. Normalizazio politikoak ezin du konpondu, anormalizazio edo desnormalizazio politikoak urratu ez duena. Eta Euskal Herriaren lurralde zatiketa ez zen Frankismoarekin edo Franco ondoreko erreformarekin hasi.

2.- FORUAK, ESTATUTUAK ETA AUTODETERMINAZIOA.

2.1.- Foruak edo lege zaharra zer diren galdetuko begenio Nafarroako foruzale bati edo Bizkaiko jeltzaile bati, agian estu eta larri jarriko genituzke. Zer dira foruak? Zer dira eskubide historikoak ?

Larritasun berdinean aurki liteke norbait autonomia zer den galdera eginen balitzaio. Zer da autonomia? Izan al lieke autonomiarik federalista ez den estatu baten barruan?

Batzuentzat foruak estatuarekiko hitzarmen edo paktuak ziren. Hori izan mendeak zehar saldu nahi izan zaigun edo erosi nahi izan dugun interpretapena. Baina posiblea al da eskubide historiko bat, nahitaez talde eskubidea eta denboran zehar irauten duen eskubidea behar duena, eskubide horren jabe edo subjektua den herriak erabakitzeko ahalmenik edo eskubiderik ez badu ? Hor dago eta hor egon da foruak paktua bezala ulertzearen gakoa eta erronka.

Gehienetan –ez beti eta bakarrik- foruak paktu edo hitzarmen bezala ulertu dituztenak foru-zaleak edo foralistak izan dira. Edozein kasutan, paktismoaren teoriak edo mitoak aurrekari oso aspaldikoak baditu, Nafarroako Erresumak Araba eta Gipuzkoa eta Durangerria galdu zituenean bertan, XIII mendean hasten delarik.

Beste batzuentzat berriz, foruak edo eskubide historikoak deitzen ditugun horiek ez dira paktuak, baizik eta estatuak berak herrialde batzu berenganatzeko edo menperatzeko garai batzuetan erabili izan dituen bitarteakoak edo/eta trikimailuak.

Zalantzarik gabe foruen edo eskubide historikoen bi ikuspegi edo azterketa horiek badute egiaren zati bana. Besteak beste, mendeak eta mendeak iraun eta daramazkien gizarte erreferentzia eta lege horiek dialektika anitzen eta indar talka askoren artean garatu eta iraun izan dutelako.

Oso adierazgarria da alde batetik estatuak eta bestetik abertzaleek foruei buruz egindako estrategia eta taktika aldaketa: Horrela, Espainiako estatuak XIX mendean, Frantziako Errepublikak XVIII mendean egin zuenari jarraituz foruen kontra jokatu zuen. Foruak ez! Zen beren oihua eta gerrateak eragin zituen jarrera horrek; izan ere, karlisten gerrak hori izan baitziren hein batean, nahiz eta beste osagarririk ere eduki.

XX mendearen hasieran ordea, Espainiako estatuak bereganatu edo asimilatu egin zuen foruen aldarrikapena: “Foruak bai, estatutua ez !” leloa eta estrategia eraiki zuen, abertzaleen eskakizunen aurka. Estatutua izan zen Espainiako Errepublikaren garaian aldarrikapen abertzaleen oinarri, bere autonomiaren eredu eta ikurrarekin.

XX mendeko bukaeran eta XXI mendeko hasiera honetan berriz, 1.978ko konstituzioaren ondoren, estatutua alderdi politiko zentralisten dehiadarra bilakatu da. PSOE-k eta batez ere PP-k defendatzen dute eta ospatu berri dituzte bere urteurrenak, nahiz eta duela hogeitamar urte arte, eta salbuespenak salbuespen, esatutu guztien aurka egon.

Orain non dago muga? Erabaki eskubidea eta erabaki ahalmenaren gauzatzean, hortxe dago kokka!

Erabaki batetik, kontsulta batetik sortutako autonomia erabakiaren bitartez aldatu daiekeena da. Jendearen eta gizartearen esanetara eta erabakietara dago. Bide hori da bide demokratiko bakarra bai independentziarako nola beste edozein egoeratarako; bide hori baizik ez dagoelako aniztasuneko elkar bizitzarako.

2.2.- Autonomiaren izaera juridikoa, jatorria eta bilakaera.

Bian autonomiak guztiak ez dira berdinak. Mota ezberdinetakoak dira eta ezberdintasun horietarako bat beren sorrera edo jatorria da.

Esatatu batzuen egitura federala bilakatu denean bere barruan sortu dira autonomiak. Horrelakoetan estatuak berak banatu egiten ditu bereak zituen ahalmen edo eskuduntzak. Horrela gertatu da ere neurri batean, esate baterako Espainiako autonomia gehienetan; baita ere Alemanian, nahiz eta ez lander guztietan. Estadutik zabaldu diren eskumenak, transferitu egin ohi dira eta bakoitzari dagokion ornidura ekonomikoarekin ematen zaizkio autonomiako aginteari.

Baina hori ez da horrela gertatzen lehendik eskumenak edo eskubide historikoak edo foruak izan ditugun herriekin. Nafarroa Garaiaren kasuan eta baita ere, Euskal Erkidego Autonomoan, autonomia ez da berri berritik sortua.

Lehendik bagenituen jatorrizko eskuduntza edo ahalmen batzuen gaurkotzea edo bilakaera izan da alde batetik gaurko autonomia. Eta, beste alde batetik berriz horrikin batera, estatuaren ahalmen eta zeregin hainbaten eskuratzea. Badaude beraz, bi motatako

eskuduntzak Hego Euskal Herriko bi autonomietan, batzuk jatorrizkoak edo berezkoak eta beste batzuk estatutik jasoak.

Bereizketa horrek garrantzi handia dauka, batez ere estatuarekin berarekin eskumen horietaz eztabaida sortzen denean, eskubide historikoen defentsa juridikoa alegia. Baina baita ere, eta gero eta gehiagotan, Europar Batasuneko erakundeekin ahalmen autonomikoei buruz eztabaidatu juridikoa edo politikoa sortzen delarik.

Izan ere, eskumenen jatorriak adierazten eta baldintzatzen baitu beren defentsa edo zaintza nolakoa behar duen eta hori ez-ezik, baita beren bilakaera nolakoa izan litekeen ere. Espainiako 1978ko Konstituzioaren lehendabiziko Xedapen gehigarriak bere lehen paragrafoan zera dio: “Konstituzioak babestu eta zaindu egiten ditu lurralde foraletako eskubide historikoak”.

Zein dira lurralde historikoak? Konstituzioaren letrak ez dauka erantzunik, baina zalantzarik gabe Euskal Erkidego Autonomoa eta Nafarroa. Zein dira eskubide historikoak? Hori ere ez dago zehazki erantzuna Espainiako Konstituzioan, baina aipatutako xedapen gehigarri horren bigarren paragrafoak zera dio: “Delako eskubide historiko horien gaurkotzea autonomia estatutuen baitan gauzatuko da”.

Guzti horietatik ordea, ondorioztatu litekeena da, eskubide historiko horiek ez direla konstituzioak sortuak, baizik lehenagokoak, pre-konstituzionalak. Bigarren ondorio da talde eskubideak direla, hau da gizartearenak edo politikoak eta ez gizabanakoarenak. Eta hori, nahiz eta konstituzioaren beraren esaera guztiz zoritxarrekoa izan, zeren eta eskubideen jabe edo sujetu bezala lurraldeak aipatzen baititu. Eta oraindik hirugarren ondorio bitxi baina garrantzitsu bat ateratzen saia gintezke eta honz zein: Direlako eskubide historiko kolektibo pre-konstituzional horiek ez lukete konstituzioaren menpekotzat edo konstituzio pean murgildurik ulertu beharko... babestu eta zainduak baizik! Hirugarren ondorio hau, jakina, ez du inoiz Epaitegi Konstituzional onartu.

Beraz eta laburbilduz, Hego Euskal Herrian dauden bi autonomiek badituzte Konstituzioaren aurretik zeuzkaten eskubide edo eskumenak, Estatutik transferitu gabeak; berezko eta jatorrizkoak.

Jatorrizko eskumenen artean, garrantzitsuenetako bat, eskuduntza fiskala da. Zera alegia, zergak eredu, jaso eta kudeatu ahal izateko ahalmena. Baina badago beste eskuduntza garrantzitsurik ere, esate baterako, Ongizate, sendakuntza, irakaskuntza eta Administralgoaren beraren antolaketan eta abar.

Jatorrizkoak ditugun eskumen horien kudeaketa sakonak sarbidea eman ahal digu Europar Batasuneko dagozkien erakundeetan partaide bilakatzeko. Erakunde horietako bat ECOFIN izena duena da, Gobernu arteko Batzorde, zergen oreka eta elkarrekiko egokipena erabakitzen duena eta baita neurri batean planifikazio ekonomikoa ere.

Dagoeneko gertatua baita Europar Batasunako Kontseilari batek, Konpetentziaren defentsagatik agindu fiskal zehatz batzu, Nafarroako Lege Foral bat eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Agindu Foral Batzu indargabetu izana. Hori 2002ko Maiatzaren 30an gertatu zen Opor Fiskalen agindu foralei buruz. Eta zer egin? Ezer ezin izan zuten egin. Alde

batetik Nafarroako eta beste probintzietako Ogasun Fiskalek ez zutelako elkar hartu jokatu eta bestetik berriz, Estadua zelako, Espaiñiako Erresuma alegia, Nafarroaren eta beste probintzien onurak zaindu behar zituen eta jakina, ez zituen defendatu nahi izan Errioxa eta beste lurralde batzuk aurka zirelako.

Baina berezkoak eta jatorrizkoak diren eskumen historiko horien defentsan, Euskal Erkidego autonomoak eta Nafarroa Garaiak elkar hartuta jokatzeko badute inoiz, ECOFIN bezalako erakunde horietan partaide bilakatzeko eskubide izan lezakete.

2.3.- Foru Autonomien eta Konstituzioaren arteko lege harremana : Konbenioa eta Kontzertua.

Konstituzio zuzenbide ikerketetan erabili ohi da beti “Piramidearen irudia edo ikurra” Goi goiko galdurrean konstituzioa bera ipinirik, beste lege eta agindu guztiak bere menpekotasunetik ulertu eta aztertu behar dira. Baina ikuspegi horrek balio beharko al luke Konstituzioaren aurretik sortuak eta konstituzioak berak babesten dituela dioen eskubide historikoekin?

Galdera hori erretorika hutsa bihurtzen da ordea, gogoan hartuz gero eskumenak defendatu ahal izateko dagoen helduleku juridikzional bakarra Epaitegi Konstituzionala dela eta Epaitegi hori politikoki guztiz baldintzatua eta menperatua dagoela. Beraz, Foru autonomien eta konstituzioaren edo aginte zentralaren arteko harremana gogortasun handiko eta maiz talka gogorretakoa izan ohi da.

Hasteko hareman honen konponbide araua ez da orekatua. Epaitegi Konstituzionala ez baita, izan ere, aginte autonomikoaren eta zentralaren artean orekatua eta inorantza makurtzen ez dena. Ez. Epaitegi Konstituzionala bere izendapenengatik, bere jokabide eta lotura politikoengatik aginte zentralaren alde makurtutako ebazlea da. Helduleku horren arbuigarritasuna da, zalantzarik gabe, euskal autonomien ahulezi nagusia.

Aterapideak ? Denak dirade zailak. Zerbait esatearren, alde batetik, erabaki eskubidea ahalmen egitea; bestela jai daukagu. Bigarrenik, nola edo hala Europar Batasuneko egitura eta erakundeetan sarbide eraginkorra lortzea. Eta jakina, aterapide nagusia da aldaketa politikoa.

Euskal autonomiak eta aginte zentrala etengabeko talkan bizi dira, etengabeko indar eta kemen norgehiagoketa bortitz batean. Adibidez, Nafarroa Garaiari dagokionez, joan den legealdian Madrileko Gobernuak la aldiz eraman zituen Nafarroako Parlamentuko lege edo erabakiak Epaitegi Konstituzionalera eraman zituen Madrileko Gobernuak. Horietako bietan epaiak Nafarroaren aurkakoak gertatu dira eta Nafarroari, jatorriz berea zuen ahalmen bat, Administralgoko Funtzionarioen Harremanak eredutzea eta kudeatzea alegia, kendu edo murriztu egin diote. Eta zer egin Epaitegi Konstituzionalaren bi epai edo ebazpenen aurka? Ez dago bene benetan eta gaurkoz aterapide handirik.

Oraingo legealdi honetan berriz, Nafarroa Garaiako Parlamentua bera izan da Epaitegi Konstituzionalera jotzea erabaki Estaduaren Menpekotasunaren Legea delakoak,

ustez, Nafarroarenak diren eskumenak urratzen eta zanpatzen dituelako. Estaduko 2006/39 legea da eta ongizatearen laugarren eskubidea bezala ezagutzen den arlo arautzen duena eta beraz, gai eta mami guztiz garrantzitsukoa.

Baina bi Foru autonomien eta aginte zentralaren arteko legezko harremanetan badago tresna bat, estatutuak baino lehenagokoa dena, estatutuetan mantendu dena eta bost edo hamar urtetik berri behar izaten dena: Nafarroan Konbenioa deitzen zaio eta Euskal Erkidego Autonomoan Kntzertua edo Kontzertuak. Espaiñiako beste autonomietan ez dago horrelako akordiorik, Canarias-etako Uharteekin hurbiltzen zaion bat egin badute ere.

Europako hainbat autonomietako arduradun politikoak, esate baterako Bavierako Parlamentu autonomikokoak eta Nafarroako Parlamentuko zenbait kidek iritzi trukaketa bat egin genuen 2006an. Haiek, Alemaniako Lander bat direlarik, autodeterminazio eskubide osoa daukate eta baita “Veto” eskubidea ere Aginte Federalak bertako eskumena urratzen duen legerik edo ebazpenik ateraz gero. Baina ez daukate ez ahalmen fiskalik eta eztaere Konbenio Ekonomikoa bezalako bitartekorik.

Konbenio eta Kontzertu Ekonomikoaren xede nagusia, besteak beste, da estaduaren gastu orokorretan eman beharrekoa nola zehaztu eta baita ere, zergen oreka nola bermatu. Zeharkako zergak (batez ere, Balio Erantsiaren Zerga, BEZ) Estaduak erabaki eta Nafarroak eta Euskal Erkidego Autonomoak berehala erabaki berdina onartu egiten da. Zerga zuzenetan ordea, badagoke ezberdintasun gehiago. Kупoa edo estaduaren gastuetako partaidetza 1.841ko Abuztuak 16ko Nafarroarentzako Lege pakzionatuaren ondoretik eta 1.876an beste probintzien Foruen ziurtapenetik eraikitako sistematik dator. Nafarroa Garaiak Espaiñiako gastuen %1,63 ordaintzen du, nahiz eta biztanlego kopuruz %1,33 legokiokeen. Hori gutxi gora behera 400 milioi euro izanen da aurrean. Euskal Erkidego autonomoak berriz, Estaduko gastuen %6,7 ingurua ordaintzen du, nahiz eta orain jende kopurua aldatu eta ehunetikako hori eztabaidan dagoen berriro.

2.4.- Zentralismoaren etengabeko oztupoak eta galgak.

Nafarroa garaiko foralisteei ez zaie “estatutu” hitza atsegin. Horregatik, besteak beste, ideologikoki XX mendeko hasierako jrreretan atxikita daudelako: Foruak bai, estatutua ez!

Baina izena gogokoa izan ala ez, egiazki Nafarroako Emejoramenduaren Legea deitzen dugun hori, estatutu bat da. Konstituzioak horrela ezarririk duelako, Epaitegi Konstituzionalak hainbestetean horrela ebatzi duelako eta bere edukia eta onarpen prozedurak horrela adierazten dutelako!

Amejoramendua edo Foru Hobekuntzako Lege deitu horretan, Gernikako Estatutuan bezala, aurreikusiak daude hainbat eta hainbat eskumen transferituak izan ez direnak. Horien artean bada bat, guztiz esanguratsua eta erabakiorra: Asegurantzaren sozialaren kudeaketa ekonomikoa!

Transferitu gabe dauden eskuduntzak Euskal Erkidego Autonomoan berrogeitik gora omen dira. Nafarroa Garaian hogeitazazpi, oker ez bagaude eta hori legi horiek onartu eta 25 urte baino gehiago igaro direlarik.

Eragin sozial sakona izanen luke herritarrengan aseguntza sozialaren eskumena hartzeak. Eskumen hau mantentzeko estatuak beti “kutxa bakarra” eta “kutxa bakarrak eragindako elkartasuna edo solidaritatea” aipatu ohi ditu.

Eztabaida gori gorian dago. NAFARROA BAI da eskumen honen aldarrikapena behin eta berriro egin duena. UPN-k ez dauka gogo handirik, baina ezin du ezezkorik esan. PSN eta IUN-NEB dira eskumen hau aldarrikatzeko edo jasotzeko aurkakoak. Zergatik? Zalantzarik gabe eta argudio teorikoetaz gainera, beren kideak diren CCOO eta UGT sindikatuek, kutxa bakar horren kudeaketa eta erabileran esku hartze izugarria dutelako...

Beraz, zentralismoak autonomiaren garapenari ezartzen dizkion oztopo eta galgetan izaten ditu baita ere bide-lagunak eta batzuetan ez dira soilik eskuin muturrekoak. Jakobinismoa Frantziakoa baizik ez zela uste zuena ez baitzebilen zuzen!

2.5.- Hego Euskal Herriko BI Estatutuak, Euskal Erkidego Autonomokoa, Gernikakoa bezala ezagutzen dena eta Nafarroa Garaikoa, Amejoramientua deitzen zaiona, bien ala biak zaharkituak gelditu dira.

Hego Euskal Herriko bi estatutuak sakonki eraberritzeko premia larrian daude. Bi estatutuek bazituzten beren pekatu orijinalak; bakoitzak bereak. Gernikako estatutuan presa gehiegi izan zen eta eskuzabaltasuna urri! Amejoramientua herriari galdeketa egin gabe eta Tejerazoaren itzalean sortu zen. Baina gainera estatutu hauek ez dira bete, erasoak jasan dituzte eta gabeziak eta hutsuneak agerian gelditu zaizkie.

Egun hauetan bete dira hamar urte, ELA sindikatuak, Gernikan egindako ekitaldi ezagun hartan ESTATUTUA hilik zegoela aitortu zuenetik. Orduan bezala orain ere Jose Elorrieta ELAko idazkari orokorra den jaunak berretsi egin du dignostiko bortitz hura ARGIA aldizkarian ikusi ahal izan dugunez. Gehiago oraindik, errefusatu edo txartzat ematen du estautuaren bidea.

Gure uste ordea, ez dago eta inork ez du adierazten autonomia ez den beste bide demokratikorik!! Ez autodeterminazioruntz, ezta independentziazaruntz ere. Baina -eta guztiaren gaintik- ezta elkarbizitzaruntz ere!

Estatutua hilik dagoela esatea ez da aski; estautuaren kudeaketan izan diren gabeziak, hutsegiteak eta erabilpenkeriak aipatzea ez da aski. Estatutua ez dela bete azpimarratzea ez da aski. Aski ez den bezala autodeterminazioaz hitzegitea, erantzuten ez bada non, nola, nondik, noren ekimenez eta noren bermeaz. Aski ez den bezala, lurraldetasun zatiketaz hitzegitea, beste guztiei erruak jaurtiki eta nola josi, ehundu eta konpondu litekeen esan gabe.

Gure betebeharra da, ez soilik kritika egitea, baizik eta bideak irekitzea, aukerak ematea eta eta arriskuak hartuz bustitzea! Zer da proposatzen duguna? Zein dira Euskal Herriak ibili beharreko bideak? Zein da ARALAR, Ezker Abertzale politikoko alderdiak proposatzen duen alternatiba eta eraberritzea?

Nafarroan joan den legealdian proposatu genuena. Idatzirik dago eta Status berri oso bat da bere argudio eta arrazoi guztiekin.

Bost ezaugarri aipa genitzake Nafarroako STATUS berria izeneko estatutu proposamenari dagokionez:

2.5.1.- Nafarron erabaki eskubidea ahalmena bilakatzea. Nafarroa garaia erabaki esparru aitortzen da. Izate hori gizarteak ematen dio eta mendeak eta mendeak zehar ezarritako zerbait da.

Ezaugarri honen argudio teorikoak badarama halako zama dialektiko nagusi bat, zera alegia, foru edo eskubide historikoen ulerketa demokratikoa ezin daitekeela erabaki ahalmen kolektiboa baizik izan. Zer dira foruak edo eskubide historikoak erabakitzeo ahalmena baizik?

2.5.2.- ARALAR alderdiak proposaturiko Nafarroako STATUS berriaren bigaren ezaugarritzat NAZIOTASUNA eta HERRITARTASUNA bereiztea da.

Kasu honetan NAFAR NAZIOTASUNAZ ari gara, baina oro har eta nonahi balio lezakeen ikuspegi ideologikotzat dugu. Gaur egun txekiar bat bizi liteke Euskal Herrian txekiar naziotasuna galdu gabe bere bizitza osoan. Eta aukera hori zergatik ez du eduki behar bertako semeak?

Herritarra bertan bizi dena da. Naziotasuna aukera ala ukoa egin dakioken norbanakoaren eskubidea da.

2.5.3.- Europar Batasunarekiko harremana. Euskal Herriko BI autonomiek nahitaez harreman zuzena behar dute Europar Batasuneko dagozkien erakundeekin, esate baterako ECOFIN deitutakoarekin.

Egia da bestalde, hareman hori behar den mailan eta duintasunean lortu ahal izateko elkarrekin jokatu behar dutela Euskal Erkidego Autonomoak eta Nafarroak. Bestela, orain arte bezala, estaduaren ordezkariarekin gelditu beharko dute.

2.5.4.- Eskuduntza edo kompetentzien eskuratzea eta zaintza “veto” errekutsoaren biartez bitartez orniturik izatea. Eskuduntzak berez, autonomiarenak bezala azaldu behar dira, eta salbuespenak utzi behar dira estaduaren esku, orain arte alderantziz den bitartean.

2.5.5. Kupoaren edo estaduari egiten zaion ekarpenaren erabakia aldebiko eztabaidaren eta akordioaren ondorio izatea eta ez orain arte bezala estaduak erabaltzen duen gastuaren hainbeskoari nahitaez aurre egin beharra.

3.- ANIZTASUN POLITIKOA, PERTSONEN NORTASUN EZAUGARRIAK ETA ZEHARKAKOTASUNA EDO TRANBERTSALITATEA.

Itzul nadin azken atal hanetan autonomiaren teoriaz eta ararzoinetaz azken zertzelada bat egitera.

- Zergatik autonomia?
- Zergatik Europar Batasunaren barruan berezitasunak, mugak desagertzen ari diren bitartean?
- Zergatik abertzaleok eta besteek

Aniztasunak hain zuzen ere, gizabanakoaren nortasunean herri edo gizarte erreferentzia bilatzen duelako. Aspaldian idatzirik dago nor izan nahi duenak nonbait norbait behar duela

Gizabanakoari zenbat eta aniztasun soziala handiago den orduan eta beharrezkoagoa zaio bere nortasun ezaugarrien artean bere herri atxikimendua hautatu eta eginik izatea.

Autonomia gero eta komenigarriagoa, gero eta beharrezkoagoa bihurtuko da gizarte garatu eta anitzetan, elkarbizitaren eta ongizarteko zerbitzuen emaile eta arragoa egiten den neurrian.

Etorkizuneko gizarte anitz eta harreman anitzekoetan, ezta duaren baino bertago, baina udalerriek dituzten muga gehiegizkoen gainetaik, autonomiak agertzen dira Europa osoan. Izan ere autonomiak badauka bidegurutze zentzua, elkarrkiko topagunearen irudia eta ikurra. Autonomiak badu ere behin-behinekoak izaki uste eta gero bizitza osoa irauten duten aterapide eta egoera horien dasta.

Ondorio gisean esan nezakeena hauxe da, abertzaletasunetik, Nafarroa Garaiko esperientziatik, Euskal Herriko Hegoaldetik, Aralar Alderditik, Nafarroa Baitik, gure elkartasun osoa duzuela Iparraldeko, zuen zeuon protagonismo osoa aitortuz autonomiaren bideak urratzen.

Iparraldeko kideok jakin, ongi badkizue, Euskal Herri osoko kezka eta nahiak gure egiten ditugula abertzale garenok. Baina zuen zeuon protagonismoa onartuz eta aitortuz, gogora ekarri nahi genuke zeuekin batean, herri honen etorkizunak, bakeak, demokraziak eta anistasunak ekartzen digun zeharkakotasunak eta elkartu beharra autonomiaren bidea ibiltzera bultzatzen gaitu.

Egin dezagun adorez bidea. Gero bideak berak erakutsiko digu helmuga.

Baionan 2007ko Azaroaren 27^a

PATXI ZABALETA